

# HERNANIK kronika

2004 urtea  
Apirilak 8  
Osteguna  
Alea: 1072  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



Hernaniar askok bidaia ajentzieta jotzen dute Aste Santuko oporrak antolatzeko.

## Aste Santuko oporretan eguzki bila Kanarietara eta Mediterraneora joango dira hernaniar asko

- Gehienek gaurtik astelehenera hartu dituzte oporrak, baina, Pazko Astea izango dituzte beste batzuek
- Hernanira ere jende asko etorriko da eta pentsio, hotel eta nekazal etxeetan leku gehiena erreserbatuta dago.

ASTE Santuan oporrak iza-ten dituzte gehienek eta au-kera aprobetxatuta asko etxe-tik ateratzen dira eta beste leku batera joaten dira des-kantsu eta giro aldaketa bila. Hernaniar askok kanpora joateko aukera hau aprobe-txatu dute eta turista askok Hernani aukeratzen dute Aste Santuko oporretako destino bezala.

**Eguzki bila ahalik eta prezio hoberenean**  
Hernaniko bidaia agentzi-eta jotzen dute herritar askok Aste Santuko oporrak antolatzeko asmotan eta bertako langileek Kronikari adierazitakoaren arabera, hernaniarrek Aste Santuko oporretako bilatzen dutena da: ofertak eta eguzkia. Asmo horretan herritar

### Hernaniarrak batez ere, Kanariar Irletara, Mediterraneora eta Landetara joatea aukeratu dute Aste Santuko oporretan.

gehenek Kanariak, Medite-raneoa, Landak, Kantabria, Andaluzia aukeratu dituzte eta urrutirago begiratzen jarrita, Egipto, Malta, Turkia eta Tunez. Madrileko aten-tatuari buruz galdetuta bidaia agentziek aipatzen dute klien-te batzuek galdeku dutela seguritateari buruz eta jendea aurten Europara gutxiago joan dela ere aipatu dute bidaia agentziek. Kasu gutxi batzutan bidaiai-kerrean kantze-latu dituzte beldurragatik.

Oporraldiak bost eguneta-koak izaten dira normalean: gaur hasi eta iganderarte. Beste batzuek, Pazko Astea aprobetxatu dute oporraldiak egiteko, astelehenetik igan-dera, sasoi horretan bidaia-tza orain baino merkeago ateratzen baita.

**Hernanira kostaren bila**  
Hernanira ere jende asko etor-tzen da Aste Santutan, gehie-nak katalanak. Horietaz gain, Madriletik eta Nafarroatik ere etortzen dira. Hernaniko hotel, ostan eta nekazal tu-rismoetan Aste Santurako leku gehienak erreserbatuta dituzte eta hiru eta bost egun bitarteko egonaldiak egiten dituzte turistek. Etortzen diren gehienak bikoteak eta haurrak dituzten familiak izaten dira.

### Hernanira datozen turistak herria kostaldetik gertu dagoelako, gastrono-miagatik eta inguru berdeagatik etortzen dira batez ere.

Turistak Hernanira etor-tzeko arrazoia izaten dira Donostiatik eta kostaldea baino merkeagoa izatea. Horretaz gain, gastronomia eta lurralde berdea izatea ere gustoko dituzte turistek.

Chillida-Leku ere bisi-tzatzen dute turista askok eta iaz Aste Santuan 6.000 bisita inguru izan zituen Eduardo Chillidaren museoak. □

## Squash eta Tenis txapelketak

HERNANIKO Udal Kirol Pa-tronatuak XI. Squash eta VIII. Tenis txapelketa antolatu ditu eta izena emateko epea zabalik dago. Izena kiroldegiko baziideak dire-nek eta ez direnek eman dezakete eta epea apirilaren 21ean buka-tzen da. Informazio gehiago behar duenak 943-552185 telefonora deitu dezake. □

## Elizkizunak gaur hiru parrokietan

GAUR Ostegun Santu eguna da eta arratsaldean elizkizunak egin-go dira herriko hiru parrokietan. Ereñotzun 17:00etan da, Juan Bataiatzailean 19:00etan eta Floridan 20:00etan. Bihar Gurutzbidea izango da, goizeko 08:30etan. □

## ■ WATERPOLOA

### Euskal Ligan Hernani 5garren

WATERPOLOKO Nesken taldea bosgarren dijoa Euskal Ligan, asteburuan Iruñako Igeriketa tal-deari 7-6 irabazita. Hernaniarrak, ordea, partidu bat gutxiago joka-tuta daude eta laugarren jarriko dira hori irabazi ezkerro.

Partidu gogorra izan zen eta ez zen azken momentura arte era-baki. Hernaniarrak markagailuan 2-0 aurretek jarri ziren, baina, hi-rugarren denboran nafarrak 4-5 nagusitu ziren. Azken bi minutu-an, Yoli, Jugatx eta Ebaren golek eman zioten Hernaniri garai-pena. Aipatzeko da Amaia Iraola ate-zaina azken partiduetan oso lan ona egiten ari dela. □

## 'The U.K. Slobs' taldea gaur Kixkalen

KONTZERTUA dago gaur Kixkal tabernan, gaueko 22:00etan hasita. The U.K. Slobs bikote inglesak emango du kontzertua eta beste taldeen bertsioak joko ditu, beren gitarraren laguntzarekin. □

**dobEra**  
EUSKARA ELKARTEA

**DOBERA SARIA II. EDIZIOA**  
3.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA

**HERNANIRI BURUZKO LAN BAT SARITUKO DA:**

- Banaka zein taldeka egin daiteke.
- Lana euskaran aurkeztu behar da.
- Lana egiteko epea: 6 hilabete.
- Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 30a.
- Agiri guztiek Dobera Elkartera bidali behar dira. (Larramendi - 11 ; Telf: 943-332799)

Hernaniko Udala

**AMEGAR**

Etxe tresnak Altzariak

Elektrogailuak TB- Bideoak- HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 03

**ZINGI-ZANGA**  
Jatetxea Sagardotegia

Ostegunetik larunbatera afariak.  
Sagardotegiko menua 15 €.

**ZINGI - ZANGA**  
Florida 54  
943 33 03 97

**Astean zehar, eguneko menuak.**



Hernanik berriz ere Espainiako Lehen mailarako igoera fasea jokatuko du.

## Mutilen boleibol taldea mailaz igotzeko bidean

■ Apirilaren 29tik maiatzaren 2ra bitartean jokatuko du azken fasea ■ Galizia, Castilla-Leon eta Asturiaseko 6 ekipo izango ditu aurkari, Gasteizko Berezirekin batera.

ASTEBURU gogorrak bere frutua eman dio EHU-Hernaniko mutilen boleibol taldeari eta Espainiako Lehen Mailara igotzeko azken fasea jokatuko du hilabete barru. Hernanirek ligila jokatu dute Euskal

Ligako 4 onenekin eta bigarren gelditu dira Gasteizko Berezzi taldearen atzetik, puntu berdinak.

Hernani eta Berezirekin batetan, Asturias, Castilla-Leon eta Galiziako beste 6 talde ari-

tuko dira Lehenengo Mailarako borrokan. Fase horretan aurrena gelditzen dena igoko da. Partiduak apirilaren 29a eta maiatzaren 2a bitartean jokatuko dira, baina, non ez dago oraindik erabakita. □

## JASOTA BEZALA

### ESAN BAINA EZ IZAN

3.EKITALDIA-XIAGERRALDIA Udaletxeko Batzar aretoa. Alkatea eta zinegotziak beren lekuetan daude, eta koroa osatzen duten lagunak alkatearen parean, bost metrotara, daude. Leiho bat irekita dago. Aretoan Kontxiren heriotzaren aurkako manifestazioaren oihuak entzuten dira. Kanpoan ekaiza egiten du.

-Alkatea (Ondoan duen morroia). - I-txi leioha!!!. Morroia leioha ixten du.

-Koroa.-Hitzetik ekintzara nola egiten duten/Lekukoak izatea etorri gara/Presoak Euskal Herriratzearekin/Beraiek ere konforme dira

-Alkatea.- (Korokoei zuzenduta) Ixo!!!.

-Alkatea.- Aurtengo aurrekontuak batzar honetan onartu behar ditugu.

-PPko zinegotzia.- Hitz egin dugunez, aurrekontuak onar dizagun, zenbait aldaketa eskatu dugu.

-Alkatea.- Udaleko Web orritik eta parerik euskal presoek Euskal Herriratzeko aldarrikapenak kendu ditugu. Baita parke publikoan jarri ziren ikurrak ere aldatu ditugu.

-PPko zinegotzia.- Ondo deritzot.

-Alkatea.- Baita herriko presoen argazkiak Udaletxetik kendu ditugu ere.

-PPko zinegotzia.-Oso ondo deritzot.

-Alkatea.- Aurtengo aurrekontuak herriko presoen senideek laguntzarik ez dute izango.

-PPko zinegotzia.- Neurri horrek guztiz ados gaude. Gainera aurrekontuak guk nahi genituen bezalakoak direla aitortzen dugu.

-PPko zinegotzia ( Bere buruari hitz eginez).- Hau pagotxa gurea, nahiz eta Udal honetan ez agindu, nahi duguna egiten dute. Halere susmoa dut borondatzez egiten dutela eta presoen senideei laguntzeko gogo handirik ez dutela.

-Koroa.- Bildutakoek kemena dugu eta/Hemen ez dago laster arte Borrokan jarraituko dugu/Herri hau askatu arte

-Alkatea (Burua makurturik).- Berorrek zerbaite gehiago nahi al du?

-PPko zinegotziak (Burua tente duela).- Oraingo ez, eskerrik asko.

-Alkatea (Bere aulkitzik altzatuz).- Beraz Udal aurrekontuak onartuak geratzen dira. Batzarra amaitu da.

Alkatea eta zinegotziak Batzar aretoaren atzeko atetik ateratzen dira. Dietak eta bestelakoak kobratzen dituzte eta etxera joaten dira. Korokoak, berriz, ate nagusitik ateratzen dira, eta plazan Kontxiren heriotzaren aurka protestatzen ari diren euskal herriarrekin elkartzen dira. Kalean, ekaitzak jarraitzen du.

Josu Arrieta

## ESKOLA KIROLA



## ASTEBURUKO EMAITZAK

| A reto Futbola  | Taldeak             | Emaitzak | Futbola         | Taldeak               | Emaitzak |
|-----------------|---------------------|----------|-----------------|-----------------------|----------|
| Benjam inak     | Langile C-Elezto B  | 0-4      | Infantil neskak | Lezo-Loizape          | 1-0      |
| Benjam inak     | Im aculda-Langile A | 0-3      | Infantil neskak | Langile-Irun La Salle | 7-0      |
| Benjam inak     | Urum ea B-Elezto B  | 1-0      | A lebin neskak  | Langile B-Elezto      | 1-5      |
| Benjam inak     | Urum ea B-Elezto A  | 3-1      | A lebin neskak  | Langile A-Urum ea     | 5-7      |
| Benjam inak     | Urum ea D-Langile B | 4-0      | A lebin m util  | Langile A-Langile B   | 3-6      |
| Benjam inak     | Langile B-Urum ea A | 1-2      | A lebin m util  | Langile A-Langile C   | 2-5      |
| Benjam inak     | Elezto A-Langile C  | 1-2      | A lebin m util  | Urum ea A-Urum ea B   | 0-13     |
| Boleibola       | Langile-Elezto      | 3-0      | A lebin m util  | Elezto A-Langile B    | 1-5      |
| Infantil neskak | Langile-Elezto      |          |                 |                       |          |

**Urumea eta Eli-zatzako futbolariak argazkian. Datorren asteburuan ez da eskola kirolik Aste Santuko oporrak direla eta.**



'Manuel' da erakusketaren gaia eta titulua.

## Jon Zabaletaren marrazkiak Andragoto ateneoan

■ Apirila bukaera arte egongo dira.

JON Zabaleta marrazkilari hernaniarraren erakusketa da go jarrita Andragoto Ateneoan eta hilabete bukaera arte egongo da ikusteko aukera. Erakusketaren izenburua *Manuel* da, marrazkilari hernaniarraren bizitzan klabea izan den pertsonaren izena: "Manuel, erakusketako klabea da. Klabeak falta diren piezak izaten dira, biltzari zentzu ematen diote-nak" dio Jon Zabaletak.

Frano hil zenean euskal artgalpen ugari hasi zen kaleratzen eta hauetarako ere marraski ugari egin ditu Jon Zabaletak: Zeruko Argia, Anaitasuna, Hitz, Berriak aldizkaria, Garai, Egin, Euskaldunon Egunkaria, Ipurbeltz, beste hainbat artean.

Aldizkarietaz gain liburuak ere ilustratu ditu Jon Zabaletak. Guztira 100 bat liburu, gehienak haurrentzako ipuinak. □

## Bigarren jardunaldia jokatu da Hernaniko pala txapelketan

HERNANIKO pala txapelketa ari dira jokatzen kirolegian eta asteburuan jokatu dira bigarren jardunaldiko partiduak. Guztira 12 bikote ari dira txapelketan eta bi taldetan daude banatuta. Talde bakoi-tzeko bikote guztiek elkarren kontra jokatu

behar dute eta bi onenak pasako dira finalurrekoetara. Orain, ez da partidurik izango bi asteburutan. □

| Emaitzak      |               |       |
|---------------|---------------|-------|
| Imaz-Gonzalez | Iñaki-Ibai    | 30-16 |
| Mañel-Ekaitz  | Andoni-Joseba | 30-23 |
| Oscar-Ivan    | Nani-Jonkar   | 30-10 |

### IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (astelehenetik-ostiralera) edo 608 12 07 32

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

| ZERBITZUAK            |            | FARMAZIAK       |              |
|-----------------------|------------|-----------------|--------------|
| TELEFONOAK            |            | FARMAZIAK       |              |
| ► Taxiak:             | 943 550093 | ► Egunez:       | Gomez Justel |
| ► Udalzaingoa:        | 943 333288 | Kale Nagusia 14 | 943 554892   |
| ► DYK:                | 943 464622 | ► Gauzez:       | Gomez Justel |
| ► Autobusak:          | 943 556662 | Kale Nagusia 14 | 943 554892   |
| ► Anbulatorioa:       | 943 006666 |                 |              |
| ► Jokalari anonimoak: | 943 331103 |                 |              |